

EngageComp – Ikasleen konpromiso zibikorako gaitasun-esparru bat

Bertsio laburra



2025eko iraila

Egileak

Jörn Allmang, Laura Eigbrecht, Monica Gago Garcia, Agurtzane Martinez Gorrochategui, Ane Urizar Zugazagoitia, Ana Duplava, Ulf-Daniel Ehlers

Laguntzaileak

Jeanne Cuny, Thomas Farnell, Heathcliff Schembri, Claire Sciberras, Christianne Gatt Fenech, Yasmine Goossens, Arno Schrooyen, Manushan Nesari, Nik Heerens, Lisa Schivalocchi

Maketazioa

Nuša Karo

Copyright-a

(C) 2025, EngageAll

EngageAll Kontsortzioa

Mondragon Unibertsitatea	MU	ES
Europako Ikasleen Batasuna	ESU	BE
Goi Mailako Hezkuntzako Erakundeak Europako Elkarteak	EURASHE	BE
Maltako Arte, Zientzia eta Teknologia Unibertsitatea	MCAST	MT
Duale Hochschule Baden-Württemberg	DHBW	DE
Jakintza Berrikuntza Gunea	KIC	MT
Leuven Limburg Unibertsitate Kolegioa	UCLL	BE
Hezkuntza Garapenerako Institutua	IDE	HR

Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin finantzatu da. Argitalpen honek egileen ikusmoldea islatzen du soilik, eta Batzordeak ez du bere gain hartuko bertan jasotako informazioak ekar dezakeen erantzukizunik.

Lan honek Creative Commons Attribution-ShareAlike 4.0 lizentzia du



EngageComp - Ikasleen konpromiso zibikorako gaitasun-esparru bat

Txosten labur honek EngageComp aurkezten du, ikasleen konpromiso zibikoari buruzko gaitasun-esparru bat, goi-mailako hezkuntza-erakundeentzat, legegileentzat, goi-mailako hezkuntzako profesionalentzat, boluntarioen antolakundeentzat eta irakasleentzat pentsatua. Ikasleen konpromiso zibikoaren bidez azaleratzen diren gaitasunak jasotzen ditu, eta gidaritza ematen du haiek jorratzeko; gainera, EngageAll ekimenetik abiatuta garatu da (Proiektuaren izenburu osoa: Ikasleen konpromiso zibiko inklusiboa goi-mailako lanbide-heziketako abilezia eta gaitasun hobetuetarako bide gisa; proiektu-zenbakia: 2024-1-DE01-KA220-HED-000251679; proiektuaren-iraupena: 2024/09-2027-04). Txostenaren bertsio osoak osatzen du, hark sakonago lantzen baititu esparru teorikoa, metodologia eta aurkikuntzak.

Testuingurua eta helburua

Konpromiso zibikoa funtsezkoa da gizarte demokratikoak indartzeko, herritar aktiboak bultzatzen dituelako eta gizarte-kohesioa sustatzen duelako. Goi-mailako hezkuntza-erakundeek ezinbesteko zeregina dute horretan, ikasleei babesa eman baitiezaiekete jarduera zibiko eta komunalak egin ditzaten, haien gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko. Ikasleen konpromiso zibikoko jarduerak indartu egiten dute gizartearekiko ekintza arduratsuak egiteko, gizartearen aldaketa positiboak eragiteko eta gizarte demokratikoetan era aktiboan parte hartzeko daukaten gaitasuna. Potentzial hori gorabehera, ikasleen konpromiso zibikoaren bitartez lortutako gaitasunak gutxiegi garatu dira oraindik, bereziki goi-mailako lanbide-heziketan (GMLH). EngageAll proiektuak hutsune horri heldu dio, gaitasunetan oinarritutako lanketa eginez, aukera egituratuak sortzeko instituzioen ekimenetan, tokiko komunitateen proiektuetan eta gizartearen askotariko erronketan parte hartzeko; gainera, GMLHEko ikasleen askotarikotasuna eta ikasketak eta eskolaz kanpoko konpromisoa bateratzeko zailtasunak aintzatesten ditu; eta instituzioei laguntzen die herritartasun aktibo zabalago eta inklusiboagoa bultzatzen. Hori guztia lortzeko, proiektuan esparru bat sortu da lehenik, ikasleen konpromiso zibikoaren bidez sortzen diren gaitasunak azpimarratzeaz gain gidaritza praktikoa eskaintzen duena.

Ikerketarako galdera eta oinarri teorikoa

Txosten honek honako galdera hau mahaigaineratzen du: nola kontzeptualiza eta susta dezaketen hezkuntza-erakundeek *ikasleen konpromiso zibikoa* gaitasunak garatzeko eremu bereizi moduan. Hain zuzen, galdera nagusia da halako konpromisoak, gizarte demokratikoak gizarte-kohesioaren eta herritartasun aktiboaren bitartez indartzeaz gain, nola eraikitzen duen kapital soziala; eta zer ekintza zibikok dakartzan ikasketa eta komunitateko eragin neurgarria.

Pedagogiari dagokionez, konpromiso zibikoa lotuta dago ikasketa esperientzialarekin (Kolb, 1984), transformatiboarekin (Mezirow, 1991) eta ikasketa kokatuarekin (Lave eta Wenger, 1991). Teoria horiek azaltzen dute parte-hartze aktiboak mundu errealeko egoeretan hausnarketa nola sakontzen duen, nola garatzen duen kontzientzia kritikoa eta nola txertatzen duen ikasketa praktika

autentikoetan. Ikusmolde soziologikotik erreparatuta, konpromiso zibikoak kapital soziala sortzen eta mugiarazten du (Coleman, 1988; Putnam, 2000), eta Bourdieu-ren (1986) kapital zabalduren esparruak argitzen du konpromisoak kapital soziala (sareak eta konfiantza), kapital kulturala (alfabetatze zibikoa, diskurtso publikoko gaitasunak, idiosinkrasia) eta kapital sinbolikoa (aintzatespena eta zilegitasuna) sortzen duela aldi berean. Konpromisorako aukera egituratuek, hortaz, trebeziak garatzea ahalbidetzen dute, baina, gainera, ikaslea eta haren erakundea indartzen duten hainbat kapital metatzea ere bai.

Dinamika horiek isla ditzaten, gaitasunak *ekintzarako gaitasuntzat* jotzen dira –jakintza, trebeziak eta balioak aurreikusi ezineko egoeretan eraginkortasunez eta arduraz jokatzeko eran txertatzen dituzten xedapen autoantolatuak (Weinert, 2001; Erpenbeck eta von Rosenstiel, 2003; Europako Batzordea, 2022). Etorbizuneko Trebeziek esparru egokia ematen digute; izan ere, testuinguru berrietan balioetan eta ardura sozialean oinarrituta arazo konplexuak norberaren gidaritzapean ebazteko ahalmena deskribatzen dute (Ehlers, 2020; Ehlers eta Eigbrecht, 2024). Konpromiso zibikoa testuinguru horien adibide paregabea da, gizartearen eraldaketei heltzen dielako, arrazoiak eta etikoa eskatzen duelako eta ekiteko asmo kolektiboa sortzen duelako.

Laburtzeko, goi-mailako ikasketetan, konpromiso zibikoa gaitasunak garatzeko eremu bat da, baita askotariko kapitalak sortzeko ere. Konpromiso zibikoa indartuz, haien ikasleek bizitza demokratikoan ekarpena egiteko, komunitate erresilienteak sortzeko eta eraldaketa-eragile gisa aritzeko duten gaitasuna indartu dezakete instituzioek. EngageComp esparruak, beraz, ikasleen konpromiso zibikoaren bitartez azaleratzen diren gaitasunak nabarmentzen ditu, eta gidaritza praktikoa eskaintzen du horiek lantzeko.

Metodologiaren diseinua

Esparrua sortzeko, metodo ugariko lanketa sakon bat erabili da. Metodologiaren diseinu zehatza ezagutu nahi izanez gero, ikus txosten osoa.

Metodoen laburpena

1. **Esplorazio-tailerra eta profilen garapena:** Hasiera-egun bat irakasleekin, ikasleekin eta erakunde laguntzaileekin. Definizioen aurreirakurketak. Talde txikietan egindako atazek esperientziak eta itxaropenak azalerarazi zituzten. Emaita: sei profil, motibazioak, oztopoak eta konpromiso-ereduak biltzen dituztenak. Profiletan oinarritutako gaitasunen hasierako identifikazioa.
2. **Literaturaren azterketa sistematikoa:** PRISMA 2020 protokoloa. Bilaketa Scopus-en: “partaidetza zibikoa” ETA (unibertsitatea EDO “goi-mailako hezkuntza”). Barne: Ingelesa/gaztelania, 2000-2024, parekoek berrikusitako azterlanak eta berrikuspen sistematikoak. Kanpo: parekoek berrikusi gabekoak, literatura grisa, txosten osatu gabekoak. 113 erregistro aztertuta; 67 baztertuta; 46 gehituta, eta proiektuekin lotutako beste artikulua bat ere bai = 47 azterlan enpiriko analisirako.
3. **Esparruen eta politiken inbentario sistematikoa:** Laguntzaileek protokolo partekatu bat aplikatu zuten hainbat datu-basetan, politika-gordailutan, bilatzailetan eta literatura grisean (2000-). Hizkuntza ugaritako hitz gakoek konpromisoa, boluntariora, ikasleen rola, zerbitzu-

ikasketetako gaitasunak eta trebeziak hartzen zituzten barnean. Emaitzak txantilo komun batean katalogatu ziren. Emaiza: 38 esparru/txosten, 6 herrialdetan eta EB mailan; ikus taula osoa eranskinean. Hausnarketa-oharrek termino berriak eta hautu metodologiko dokumentatuak biltzen zituzten.

4. **Gaitasunak identifikatzea eta finkatzea:** Hainbat ikertzailek esparruak gorantz eta modu irekian kodetu dituzte. Gaitasunak ez diren itemak kendu (jakintza/jarrera puruak) dira. Teilakatutakoak bateratu dira. Emaiza: gaitasun-sorta laburra; boluntarioria-jarduerak eta rolak bereiz zerrendatuta.
5. **Gaitasunen multzokatzearen eta estalduraren analisia:** Gaitasunak NextSkill egituraren (Ehlers, 2000) mapatu dira, konparagarritasunerako eta integrazioerako sostengu-sare analitikoetatik jo baita. Mapatzea berrikusi zen ordezkariak txikiegia zuten NextSkill kategoriak eta lekurik ez zuten gaitasunak detektatzeko. Inon sartzen ez zirenak eremu berri potentzial gisa markatu ziren.
6. **Esparruaren 1. bertsioa diseinatzea:** Zirriborroa egin zen, dokumentazioaren ikerketan oinarrituta, baita gaitasunen multzokatzeko eta estalduraren analisian ere. Kontsultazioaren iritzia jaso zen *in situ* eginiko bileraren aurretik eta bileran bertan.
7. **Adituen elkarrizketa erdi egituratuak eta 17 elkarrizketa, 60-90 minutuko saioak, aurrez aurre zein online (1-8 parte-hartzaile elkarrizketa bakoitzeko).** Audioa grabatu zen, transkripzio garbitua egin zen, anonimizatu egin ziren, eta itzuli ere bai. Gaiak: ikasleen konpromiso zibikoaren definizioak, hasierako esparrua, ikasleen konpromiso zibikoaren bidez garatutako gaitasunak, hausnarketa-beharrak, boluntarioria bultzatzeko baldintzak.
8. **Edukiaren analisi kualitatiboa eta baliozkotzea:** Edukiaren gaikako egituraketaren azterketa (Rädliker eta Kuckartz, 2020); kodetze iteratibo oinarritutako/finatua eta programa eguneratzea. Aurkikuntzak esparruan txertatu, feedback-a jasotzeko zabaldu, aldi berean eztabaidatu eta amaitutzat jo ziren adostasunez baliozkotu ondoren.

Ikasleen konpromiso zibikorako EngageComp esparrua

EngageComp esparruak gaitasunak deskribatzen ditu, ikasleek boluntarioriaz, zerbitzu-ikasketaren eta bestelako konpromiso zibiko mota batzuen bitartez garatzen dituztenak, hain zuzen. Halako konpromisoak gaitasun-sorta zabalagoa finkatzea bultzatzen du eremu pertsonaletan, praktikara bideratuetan eta gizartean oinarrituetan, eta ikasleei tresnak ematen dizkie gizartean sortzen diren erronka berriei eta behar konplexuei aurre egiteko, hala testuinguru pertsonaletan nola profesionaletan, baita nahi duten moduko etorkizunera jotzeko ekintzarako ere. Esparru horren barruan, **Gaitasun Zibiko eta Demokratikoa** da besteak biltzen dituen gaitasun nagusia, hemen deskribatutako gainerako gaitasunetatik sortzen baita eta haiek indartzen baitute. Hala eta guztiz ere, gaitasun zibikoa ezin kontzeptualiza daiteke gaitasun bakar gisa; aitzitik, elkar gurutzatzen duten oinarritutako hainbat gaitasunek osatutako gaitasun aplikagarri oso eta kohesibo bat da, mundu errealeko egoeretan arazo konplexuak ebazteko edo haietan esku hartzeko.

Gaitasun Zibiko eta Demokratikoa partaidetza demokratikoa ahalbidetzen duen ekintzarako gaitasun bat da, hemen darabilgun definizioaren arabera. Testuinguru sozialetan, praktikan oinarrituetan eta pertsonaletan bizitza demokratiko eta zibikoan era aktiboan, arduraz eta etikoki parte

hartzeko ahalmena eta prestasuna biltzen ditu: demokrazia, giza eskubideak, kultur dibertsitatea eta berdintasuna aintzatestea, partaidetza-ahilezia eta prozesu demokratikoetan eta gizarte-eraldaketan laguntzeko motibazioa bateratuta.

EngageComp esparruak elkarri lotutako hiru dimentsio hartzen ditu:

1. Testuinguru soziala – Lankidetzaren eta erantzukizun soziala

Gaitasunen esparruko eremu honek azpimarratzen du konpromiso zibikoa erantzukizuna, ekintza kolektiboa eta aurrerakuntza demokratiko eta sozialerako ekarpena sustatzeko bitarteko bat dela.

2. Praktikaren testuingurua – Aplikazioa eta arazoaren ebazpena

Gaitasunen esparruko eremu honek azpimarratzen du konpromiso zibikoa ideiak praktika bihurtzeko, arazoak ebazteko gaitasunak garatzeko eta gizartearen erronkei heltzen laguntzeko bitarteko bat dela.

3. Norberaren testuingurua – Hazkunde pertsonala eta norberaren garapena

Gaitasunen esparruko eremu honek nabarmentzen du konpromiso zibikoa norberari buruzko hausnarketa, moldagarritasuna eta etorkizun pertsonal eta profesional jasangarriko gaitasunen garapena bultzatzen duela.

EngageComp: Ikasleen konpromiso zibikorako esparru bat



1. irudia: EngageComp esparrua (txostena, bertsio laburra)

Esparru honetan, identifikatutako 21 gaitasunak gaitasun-profil gisa aurkezten dira. Gaitasun-profil bat gaitasun esanguratsuak biltzen dituen alor koherente bat da; diseinurako, hausnarketarako eta ebaluaziorako unitate egituratu bat. Erreferentziazko gaitasunak profil bakoitzak jasotako trebezia eta gaitasunak dira. Profilaren xehetasunak zehazten dituzte, gaitasun nagusia praktikan nola frogatzen den erakusten duten elementu granular eta behagarrien bidez.

Gaitasun-profilen xehetasunak: Deskribapenak eta erreferentziazko gaitasunak

1. taula: EngageComp: Erreferentziazko gaitasunak eta deskribapenak (txostenaren bertsio laburra)

Gaitasuna	Erreferentziazko gaitasunak	Deskribapena
Gaitasun zibiko eta demokratikoa	-	Gaitasun zibiko eta demokratikoak barnean hartzen du bizitza demokratiko eta zibikoan testuinguru sozialetan, praktikan oinarrituetan eta pertsonaletan era aktibo, arduratsu eta etikoan

		parte hartzeko ahalmena eta prestasuna: demokrazia, giza eskubideak, kultur dibertsitatea eta berdintasuna aintzatestea; partaidetza-ahilezia; eta prozesu demokratikoetan eta gizarte-eraldaketan laguntzeko motibazioa barne.
Testuinguru soziala: Elkarlana eta ardura soziala		
Lankidetza-gaitasuna	taldean lan egiteko ahalmena, negoziazioa, gatazken ebazpena, adimen soziala, aholkularitzako esperientzia, partaidetza parekidea ziurtatzea, erantzukizun kolektiboa, konpromiso kolektiboa	Lankidetza-gaitasuna lotuta dago antolakundeetan taldeetan elkarlanean aritzeko eta laguntzeko ahalmenarekin eta prestasunarekin, hala aurrez aurre zein era digitalean, ezberdintasunak adostasun bihurtzeko. Barnean hartzen du giza eskubideak eta justizia soziala errespetatuz eta elkartasunez lan egitea, eta guztion onerako ongizate kolektiboa bultzatzeko denbora eta esfortzua inbertitzeko gogoia izatea.
Komunikazio-gaitasuna	entzute aktiboa, hitzeko zein hitzik gabeko komunikazioa, aurkezteko trebezia, pertsuasioa, negoziazioa, hizkuntz gaitasuna, komunikatzeko prestasuna, kritika jasotzeko prestasuna, enpatia, komunikazio inklusiboa, jendaurrean mintzatzea	Komunikazio-gaitasuna ez da soilik hizkuntzarako trebezia edukitzea, barnean hartzen baititu diskurtso enpatikoari, elkarriketari eta komunikazio estrategiei lotutako gaiak; izan ere, horiek –batera– erabilgarriak zaizkio norbanakoari arrakastaz eta dagokion egoeraren eta testuinguruaren arabera komunikatzeko, bere eta besteen beharrak aintzat hartuz eta haiekin enpatiaz jokatzuz.
Dibertsitate- eta kulturartekotasun-gaitasuna	kulturaren kontzientzia eta irekitasuna, dibertsitatea aintzatestea, enpatia, inklusibotasunaren kontzientzia, alborapenak identifikatzea, perspektiba hartzea	Dibertsitate- eta kulturartekotasun-gaitasuna da askotariko testuinguru kultural, sozial eta linguistikoetan gizakiaren dibertsitatea modu eraikitzailean aintzatestea, balioestea eta lantzea. Barnean hartzen ditu enpatia, perspektiba hartzea, kultur ezberdintasunen kontzientzia eta kulturarteko esperientziak izateko motibazioa, baita testuinguru profesional eta zibiko pluraletan berdintasuneko eta errespetuzko harremanak izaten laguntzekoa ere.
Zentzua ematea	norberaren kontzientzia, esanahia	Zentzua ematea honako honetan datza: gogoia eta trebezia edukitzean konpromiso-, ikasketa-, lan- eta bizitza-testuinguruetako egitura aldakorrei

	sortzea, balioetara bideratzea	esanahia emateko eta haiek ulertzeko, dauden esanahi-egiturak gehiago garatzeko edo galdu direnetan berriak sortzea sustatzeko.
Lidergo-gaitasuna	delegatzea, gatazken kudeaketa, taldearen motibazioa, liderraren coach-izaera, lidergo inklusiboa, krisien eta estresaren kudeaketa, lidergo etikoa	Lidergo-gaitasuna da antolakundeetan eta testuinguru zibikoetan norbanakoak eta taldeak xede partekatuetarantz gidatzeko ahalmena eta prestasuna. Alegia, besteak beste, gidaritza, <i>coachinga</i> , eta gainerakoek lider izatea, askotan taldeena, erantzukizuna hartuz, eta, aldi berean, lankideak ereduari jarraitzeko motibazioa eta inspirazioa ematen dieten eran jokatzea. Lidergo-gaitasunak, gainera, orientazio etikoa, inklusibotasuna, enpatia eta segurtasun psikologikoa sustatzeko konfiantza sortzea biltzen ditu, baita ekintza kolektiboa koordinatzeko antolakuntza- eta plangintza-gaitasunak ere. Horrez gain, erantzukizuna eta zuzentasuna biltzen ditu, besteei arrakasta izan dezaten laguntzeko eta aldaketa eraldatzaileetarako ekarpena egiteko.
Testuinguru praktikoa: Aplikazioa eta arazoak ebaztea		
Kudeaketa-gaitasuna	delegatzeko gaitasuna, askotariko ikuspegiak kudeatzea, denboraren kudeaketa, proiektuen kudeaketa, interesdunekiko komunikazioa, monitorizazioa eta ebaluazioa, estresaren eta arriskuen kudeaketa, asertibotasuna	Kudeaketa-gaitasunak erreferentzia egiten dio prozesuak, pertsonak eta baliabideak antolakundeetan testuinguruan eta testuinguru zibikoetan egituratzeko eta definitutako helburuetarantz bideratzeko ahalmenari eta prestasunari. Barnean hartzen du helburuak eta erantzukizunak garbi izatea, denborarekiko efizientzia eta autokudeaketa, baita lanketa egituratua egitea ere, helburuetara bideratua, askotariko eragileen ahaleginak lerrokatzen dituenak. Gaitasun honen barruan sartzen dira, gainera, proiektuen eta prozesuen kudeaketa; logistika eta baliabideak esleitzea; dokumentazioa eta txostengintza; eta etengabeko monitorizazioa, askotariko ikuspegietatik modu eraginkor eta inklusiboan lan egiten dela ziurtatzeko.

Diseinua pentsatzeko gaitasuna	datuen ebaluazioa, arazoen analisia, arazoak inklusibotasunez ebaztea, pentsamendu analitikoa, malgutasuna eta irekitasuna, moldagarritasuna, perspektibaz aldatzeko ahalmena	Diseinua pentsatzeko gaitasunak barnean hartzen du arazo eta gai jakin batzuen inguruan metodo zehatzak erabiltzeko ahalmena, garapen-prozesu sortzaileak amaiera zabalik dela aurrera eramateko helburuarekin.
Berrikuntza-gaitasuna	sormena, berrikuntza, arazoak ebaztea, esperimentatzeko gogoia	Berrikuntza-gaitasunak barnean hartzen du berrikuntza sustatzeko gogoia –hala berrikuntza teknologikoa nola soziala–, antolakundeetako edozein objektu, gai eta prozesuren parte izan dadin, eta antolakundeari berrikuntzako ekosistema gisa ekarpena egiteko ahalmena.
Alfabetatze digitala	bitarteko digitaletako alfabetatzea, erabilera digital arduratsua, autosufizientzia digitala, informazio-arloko alfabetatzea, AA arloko alfabetatzea, boluntarioria digitala	Alfabetatze digitala da bitarteko digitalak erabiltzeko ahalmena eta prestasuna izatea, horiek era produktibo eta sortzailean garatzeko, baita haien erabileraz eta gizartean eta lanean duten eraginaz kritikotasunez hausnartzeko gaitasuna ere, hala testuinguru pribatu nola profesionaletan, eta bitarteko digitalek dakartzaten aukerak, dituzten mugak eta beraiekin dakartzaten eraginak ulertzea ere bai.
Etorkizun- eta diseinu-gaitasuna	etorkizunerako prestasuna, aurreikuspena, etorkizunari buruzko alfabetatzea, aldaketarako gogoia, etengabe hobetzeko ahalmena, etorkizunerako pentsamoldea, garapenerako prestasuna, aldaketa hastea	Etorkizun- eta diseinu-gaitasuna da etorkizun ireki eta alternatiboak ikusteko, negoziatzeko eta komunikatzeko ahalmena, eta haietara hurbiltzeko urratsak ematekoa. Barnean hartzen du egungo eta etorkizuneko egoerak irekitasunez hartzea, gauza berrietarako prest egotea, aldaketarako gogoz eta aurreranzko pentsakerarekin. Helburua da egoerak etorkizuneko ikusmolde ezberdin, berri eta aurretik ezezagunetarako garatzea, eta horiek sormenez jorratzea.

Gaitasun sistemikoa	pentsamendu jasagarria, pentsamendu sistemikoa, egituretan nabigatzea, inpaktua sortzeko palankak identifikatzea, gaitasun analitikoa, sinergiak sortzea, aplikazio-gaitasuna, arazoak ebaztea, moldagarritasuna	Gaitasun sistemikoa da sistema pertsonal, psikologiko, sozial eta tekniko konplexuak eta haien arteko harremanak ezagutzeko eta ulertzeko ahalmena, eta sisteman ekimen berrietarako prozesuen plangintza eta ezarpen koordinatua diseinatzeko edo sostengatzeko ere bai. Barnean hartzen du, halaber, sistema politiko, legezko, kultural, ingurumeneko eta ekonomikoen eta haien arteko mundu osoko mendekotasunen gaineko kontzientzia, baita ezagutza hori botere-egiturak, ezberdinkeria eta jasagarritasuna ebaluatzeko eta gizarte-aldaketa informatua sorteari ekiteko erabiltzea.
Norbanakoaren testuingurua: Hazkunde pertsonala eta norberaren garapena		
Ikasketa-gaitasuna	ikasteko gogoia, norberari buruzko hausnarketa, norberak gidatutako ikasketa, bizi osoan ikasteko ahalmena, trebezia metakognitiboak	Ikasketa-gaitasuna da norberak gidatuta eta norberak hasita ikasteko ahalmena eta gogoia. Trebezia metakognitiboak ere hartzen ditu barnean.
Autoeraginkortasuna	norberarekiko konfiantza, helburuetara bideratzea, jokabide profesionala, norbere ekarpena identifikatzea, norberak aldea egiteko ahalmenarekiko konfiantza, mugak ezartzea (pertsonalak)	Autoeraginkortasunak erreferentzia egiten dio norberak askotariko testuinguruetan ataza zibikoak planifikatzeko, hasteko eta burutzeko duen sinesmenari eta autokonfiantzari. Barnean hartzen du muga pertsonalak ezartzea, ahalegina eta ongizatea sostengatzeko, eta profesionaltasuna erakustea. Autoeraginkortasunak ekimena eta ardura izatera bultzatzen du, oso beharrezkoa baita ikasleen konpromiso zibikoan; gainera, autoeraginkortasunak konpromiso zibikoa susta dezake, aldaketa eta eragina norberaren konpromisoaren emaitza dela ulerrarazten baitu.
Gaitasun pertsonala	autoerregulazioa, autoerantzukizuna, autoantolakuntza-gaitasuna, autokudeaketa, zama kognitiboaren kudeaketa	Gaitasun pertsonala da norberak bere ahalmen pertsonal eta profesionalak garatzeko duen gaitasuna, kanpoko influentziak influentzia. Barnean hartzen ditu beste trebezia batzuk ere, esaterako, automotibazioa eta plangintza, baina baita helburuak ezartzeko ahalmena, denboraren kudeaketa, antolaketa, ikasteko trebetasuna eta iritziak jasoz arrakasta kontrolatzea ere. Horrez

		gain, zama kognitiboaren kudeaketa eta ardura pertsonal handia ere gaitasun honek biltzen du.
Autodeterminazioa	norberarekiko konfiantza, pertseberantzia, erresistentzia, autonomia	Autodeterminazioa da norbanakoak kanpoko egituraren eta autoantolakuntzaren arteko tentsioaren eremuan produktibotasunez jarduteko duen ahalmena, baita bere garapenerako eta autonomiarako espazioa sortzekoa ere, bere beharrak askatasunez eta berak antolatutako eran betetzeko.
Hausnarketa-gaitasuna	norberaren kontzientzia, iritziak jasotzeko irekitasuna, pentsaera kritikoa, norberari buruzko hausnarketa	Hausnarketa-gaitasunak barnean biltzen ditu hausnartzeko gogoia eta ahalmena, esan nahi baita, garapen eraikitzaileko norbera eta besteak auzitan jartzeko ahalmena eta azpiko jokabide-, pentsamendu- eta balio-sistemak ezagutzeko, baita ekintzetan eta erabakietan dituzten ondorioak era holistiko eta kritikoa ebaluatzea ere.
Arduraz erabakitze gaitasuna	erabakiak hartzea, arazoak ebaztea, pentsamendu analitikoa, parte hartzeko trebezia, erantzukizuna hartzea	Arduraz erabakitze gaitasuna da erabakiak hartzeko eta hainbat alternatiba erkatze eta ebaluatze ahalmena izatea, baita azken erabakia hartu eta haren erantzule egitekoa ere. Barnean hartzen du besteen beharrak, emozioak eta bizitako esperientziak aintzat hartzea, erabakiak hartzeko prozesuaren parte gisa, ziurtatzeko erabakiak onuragarriak direla norbanakoen eta komunitateen ongizaterako.
Ekimen- eta errendimendu-gaitasuna	aurea hartzea, (berezko) motibazioa, automotibazioa, erresilientzia, helburuetara bideratzea, konpromisoa, iraunkortasuna, parte hartzeko gogoia	Ekimen- ekimen- eta errendimendu-gaitasuna da norbanakoak bere burua motibatze duen ahalmena, baita helburuak erdiesten laguntzeko gogoia ere. Iraunkortasuna eta helburuetara bideratzea da errendimenduaren motibazio-oinarria. Norberaren kontzeptu positiboa izatea ere garrantzitsua da, lagungarria baita arrakasta eta porrota jarduteko motibazioa ez txikitze moduan ulertzeko.
Anbiguotasunerako gaitasuna	moldagarritasuna, malgutasuna, ziurgabetasunarekiko tolerantzia, erresilientzia, ziurgabetasuna kudeatzea, rol	Anbiguotasunerako gaitasuna da norbanakoak anbiguotasuna, heterogeneotasuna eta ziurgabetasuna ezagutzeko, ulertzeko eta, azkenik, produktibotasunez kudeatzeko ahalmena, baita askotariko roletan aritzeko ere.

	ezberdinetan aritzeko ahalmena, heterogeneotasuna kudeatzea	
Gaitasun etikoa	praktika etikoa, pentsamendu jasangarria, tolerantzia	Gaitasun etikoa osatzen du egoera bat etikoki garrantzitsua dela hautemateko gaitasunak. Barnean hartzen ditu honako hauek: haren aintzatespen kontzeptuala, enpirikoa eta testuingurukoa (hauteman), premisa preskriptibo esanguratsuak egiteko ahalmena eta haien garrantzia, pisua, justifikazioa, lotesletasuna eta aplikatzeko baldintzak ebaluatzeko ahalmena (ebaluatu), eta judizioak egiteko eta haien koherentzia logikoa, haien erabiltzeko baldintzak eta alternatibak egiaztatze ahalmena (epaitu).

Ondorioa

Gaitasunen esparrua erabilgarria da hurrengo proiektuetarako oinarritzko elementu gisa erabiltzeko. Euskarri bat izango da tresna-multzo praktikoak, gidalerroak eta hausnartzeko material egituratuak garatzeko, ikasleei konpromiso zibikoaren bitartez garatu dituzten gaitasunak ezagutzen, antolatzen eta fintzen lagunduko dietenak. Horrez gain, proiektuak esku-hartze pilotu egituratuak egingo ditu, ikasle enbaxadoreen plan bat eta eskola espezializatuak barnean hartuko dituztenak, erakunde laguntzaileetan eta bestelakoetan ikasleen partaidetza zibiko inklusiboa eta aktiboa sustatzeko.

Esparruak honako hauetan interes diezaieke erakunde interesdunei:

- ikasleen konpromiso zibikoaren bitartez gaitasunak garatzeko aukerei buruzko hausnarketak diseinatzea
- prestakuntza-eskaintzak diseinatzea eta dauden konpromiso-programak egokitzea
- ikasleen konpromiso zibikoa sustatzea

EngageComp-ek esparru garbi eta aplikagarri bat ematen du gizartearen, praktikaren eta norbanakoaren eremuetan ikasleen konpromiso zibilaren bitartez lortutako gaitasunak ezagutzeko eta garatzeko, Gaitasun Zibiko eta Demokratikoa erdigunean jarrita. Zenbait metodo (literaturaren azterketa, 38 esparru eta politika-dokumenturen analisia, adituen elkarrizketak, *focus group*ak eta kontsultazioak baliozkotzea) nahasten dituen diseinu batetik abiatuta eraikitako esparru honek ebidentzia 21 gaitasun-profiletan biltzen du. Profil horietako bakoitzak, gainera, diseinurako, hausnarketarako eta ebaluaziorako erreferentziazko gaitasunak biltzen ditu.

Erreferenziak

- Bourdieu, P. (1986). The forms of capital. In J. G. Richardson (arg.), *Handbook of theory and research for the sociology of education* (S. 241-258). Greenwood.
- Coleman, J. S. (1988). Social capital in the creation of human capital. *American Journal of Sociology*, 94(eranskina), S95–S120.
- Ehlers, U.-D. (2020). *Future Skills: The future of learning and higher education*. Springer.
- Ehlers, U.-D. eta Eigbrecht, L. (arg.). (2024). *Creating the University of the Future: A Global View on Future Skills and Future Higher Education*. Springer. <https://doi.org/10.1007/978-3-658-42948-5>
- Erpenbeck, J., eta von Rosenstiel, L. (2003). *Handbuch Kompetenzmessung: Erkennen, verstehen und bewerten von Kompetenzen in der betrieblichen, pädagogischen und psychologischen Praxis*. Schäffer-Poeschel.
- Europako Batzordea. (2022). *GreenComp: The European sustainability competence framework*. Publications Office of the European Union.
- Kolb, D. A. (1984). *Experiential learning: Experience as the source of learning and development*. Prentice-Hall.
- Lave, J., eta Wenger, E. (1991). *Situated learning: Legitimate peripheral participation*. Cambridge University Press.
- Mezirow, J. (1991). *Transformative dimensions of adult learning*. Jossey-Bass.
- Putnam, R. D. (2000). *Bowling alone: The collapse and revival of American community*. Simon & Schuster.
- Weinert, F. E. (2001). *Concept of competence: A conceptual clarification*. In D. S. Rychen & L. H. Salganik (arg.), *Defining and selecting key competencies* (pp. 45–65). Hogrefe & Huber.

Esker-emateak eta harremanetarako informazioa

Esker ona

Eskerrak eman nahi genizkieke txosten honetan lagundu duten aditu, instituzio laguntzaile eta interessdun guztiei.

Harremanetarako informazioa

Jörn Allmang

Ikertzaile akademikoa

NextEducation ikerketa-taldea

Baden-Wuerttemberg Cooperative State University Karlsruhe

joern.allmang@dhbw-karlsruhe.de

Oharra

Txosten honek egileen iritziak bakarrik jasotzen ditu. Europako Batzordeak ez du bere gain hartzen bertako informazioen ezein erabileraren erantzukizuna.